

MATERIAL DIDAKTIKOEN ESKULIBURUA

Finantza etiko eta alternatiboen hezkuntza ikasgelan



Sarrera	3
Finantza etiko eta alternatiboen hezkuntza helburu	5
Finantza-hezkuntza eraldatzaile bat praktikan jarritz	9
Baliabide didaktikoen eskuliburua	12
1 Gida didaktikoak	15
2 Liburuak	27
3 Komikiak	32
4 Artikuluak - Txostenak	35
5 Ikastaroak	39
6 Tailerrak	48
7 Jokoak	54
8 Argazki erakusketak	59
9 Bideoak / Dokumentalak	63
Erreferentziazko webguneak	81

Eskerrak: Irakasleei, ikastetxeei, finantza etikoetako eta ekonomia sozial eta solidarioetako erakunde eta sareei, eta boluntarioei.

Egilea: Finantzaz Haratago

Diseinua eta maketazioa: Diseñame

Itzulpena: Bakun



Sarrera

Finantzaz Haratago, Finantza Etiko eta Alternatiboetako Hezkuntzaren Euskal Sarea, Euskadin finantza etiko eta alternatiboetako hezkuntza era horizontal eta parte-hartzaile batean indartu eta zabaldu nahi duen plataforma bat da.

2019. urtean sortu zen, finantza etikoen inguruko Euskadiko zenbait erakundek egindako aurrelanari esker; erakunde horiek egungo finantza- eta ekonomia-sistematikiko ikuspegi kritikoa partekatzen dute, eta konpromiso beteko jarrera aktiboa dute finantza alternatibo solidarioak sustatzeko. Ezarrita dagoen finantza-hezkuntzaren ereduarekiko kezka eta eredu horren aurrean dauden alternatibak ikusarazteko beharra izan ziren esperientzia honen abiapuntua.

Ikasleek eta gizarteak jasotzen duten finantza-hezkuntzaren inguruko hausnarketa kritikoa eta eraikitzailea sustatzeko, Sareak aliatu garrantzitsuak ditu; horietako batzuek, gainera, hasieratik hartu zuten parte plataforma eratzeko prozesuan, funtsezko ekarpenak eginez. Finantza etikoen eta ekonomia solidarioaren sustapenean aritzen diren askotariko erakundeak dira, tokikoak eta mundu-mailakoak, hainbat eremu eta erakundetako sareak, ikastetxeak, etab.



Finantzaz Haratago sarearen helburu nagusia da baliabide didaktikoak eta hausnarketarako baliabideak ematea, **egungo ekonomia-sistemaren ikuspegi kritiko bat azaleratuko dutenak, mundu sozial eta jasangarriago baterako alternatiben lagin bat**. Hori guztia parte-hartzean eta lankidetzan oinarrituz landu nahi da, politikoki eraginez eta egungo hezkuntza-sistemari eta hobetzeko dituen aukerei buruz hausnartuz.

Helburu hori lortzeko, Sareak hiru ardatzen inguruan egiten du lan bere sorreratik:



Finantza Etiko eta Alternatiboen Hezkuntzari buruzko **lan-plataforma** bat **indartzea**, bai Euskadin bai munduan, hainbat erakundek, sarean, elkar ahaldunduz egiten duten lan kolektibo baten bitartez.



Euskadin, finantza-hezkuntza eraldatzeko, tresnak **sortzea**; horrela, izandako esperientziak eta lortutako ikasgaiak beste eragile batzuei transferitu ahal izango zaizkie, beste esparru eta lurralde-eremu batzuetan aplikatzeko.



Finantza etiko eta alternatiboetan **gaitzeko**, horiei buruz **hausnartzeko eta elkarrekin eztabaidatzeko guneak sustatzea**, ekonomia feministaren, justizia klimatikoaren eta Hegoalde Globalaren ikuspegia integratuz.



Hemen aurkezten den lanari dagokionez, Finantzaz Haratago sarearen jarduera hasi zenetik izan den lorpen handienetako bat nabarmendu behar da: FETS - Financement Étic i Solidari elkartearekin –Finantza Etikoen Kataluniako sarea–, Oikocredit Catalunya erakundearekin eta Fiare Fundazioarekin elkarlanean, **RedEFES (Finantza Etiko eta Solidarioen Heziketaren Aldeko Sarea)** webgunea sortu zen 2019ko urriaren 7an (Finantza-hezkuntzaren Eguna), eta baliabide bikaina da materialak eta ezagutza transferitzeko. Irakasleak eta finantza etikoetako nahiz hezkuntza eraldatzaileko erakundeak elkartzeko gune bat eskaini da, ekonomia-hezkuntza kritikoa eta finantza etiko eta solidarioak sustatzeko. Laburbilduz, irakasleen, eragileen eta hainbat eremutako gizarte-erakundeen harreman zuzena sustatzea da xedea, partekatu eta elkarrekin ikasi ahal izateko, eta, horrela, hezkuntza eraldatzailea sustatzeko.

Material didaktikoen eskuliburu honen xedea da **RedEFES** sarearen webgunean eskura dauden baliabideak sarbide errazeko dokumentu batean biltzea, finantza etiko eta alternatiboen hezkuntzako materialak ikasgelan txertatuz eta aplikatuz joateko.



Finantza etiko eta alternatiboen hezkuntza helburuhelburu

Azken urteetan ikusi denez, finantza-hezkuntza ikastetxeetako curriculumean txertatu da, estatu mailako eta tokiko hainbat plan eta dekretu onartzearen ondorioz.

2008. urtean hasi zen dena. Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak (BMBN/CNMV) finantza-hezkuntzako estatu-mailako estrategia bat bultzatu zuten, eta proiektuaren ildo nagusiak **“2008-2012 aldiko Finantza Hezkuntzako Plana”** izeneko dokumentuan jaso zituzten. Abiatutako ekintzei jarraipena emate aldera, konpromiso hori berriro zen **“2013-2017 aldiko Finantza Hezkuntzako Plana”** izeneko dokumentuaren bidez, biztanleriaren finantza-kultura hobetzeko asmoz, herritarrek gai izan zitezen finantza-testuinguruari behar besteko konfiantzaz aurre egiteko.

2018. urtean, erakunde horiek lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten, finantza-hezkuntzaren estatu-mailako estrategia-garapenerarekin jarraitzeko, eta **“2018-2021 aldiko Finantza Hezkuntzako Plana”**, aurkeztu zuten, aurreko planen ildo beretik. Prozesu bera erabili zen plana definitzeko eta garatzeko, eta, batez ere, estatuko finantza-erakundeek eta gertuko beste erakunde batzuen ekarpenak eta interesak jasotzen dira bertan.

Aipatutako plan horiek “Finanzas para todos” (“Guztiontzako finantzak”) marka sortu dute, eta “Finantza Hezkuntzaren Eguna” finkatu da (urtero, urriaren lehen astelehena); horrez gain, komunikazio-estrategia digitalizatu bat garatu da, biztanleriaren segmentu zabaletara iristeko.

Halaber, 2012ko eta 2015eko PISAren emaitzek adierazitakoa nabarmendu behar da; izan ere, derrigorrezko hezkuntzaren etaparen amaierara iristean ikasleen prestakuntza ebaluatzen duen proba

akademiko horren emaitzen arabera, espainiar estatuko errendimendua azterketan parte hartu zuten beste herrialdeen batez bestekoaren azpitik zegoen. Emaitzek eragindako kezkak ekarri zuen eskoletan finantza-hezkuntza txertatzeko ahaleginak areagotzeko beharra.



Plan horien paraleloki, urte horietan, finantza-hezkuntza txertatuz joan da eskola-curriculumeko zenbait hezkuntza-mailatan, eta estatu-mailako hainbat irakasgaitan eskuratu beharreko zeharkako gaitasunetan gauzatu da. Gutxieneko akordioak dira, autonomia-erkidego bakoitzak hezkuntza-eskumen propioak baititu eta plan horiek sakonago garatu baititzake.



126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Lehen Hezkuntzako oinarriko curriculumara arautzekoa.

Eskuratu beharreko zeharkako gaitasunak hartzen du honako hau: “Lehen Hezkuntzako curriculumek ekintzaile-sena garatzera eta finkatzera bideratutako curriculum-elementuak izango dituzte”.



1105/2014 Errege Dekretua, abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko oinarriko curriculumara ezartzekoa (LOMCE).

Curriculumeko gaitasunak hartzen du honako hau: “Ekimenerako eta ekintzaile izateko sena”, zeharkako elementuak agertu behar diren. “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumek xede hauek dituzten curriculum-elementuak izango dituzte: ekintzaile-sena garatzea eta finkatzea, askotariko enpresa-ereduak sortzeko eta garatzeko gaitasunak eskuratzea, aukera-berdintasuna eta ekintzailearekiko eta enpresaburuarekiko errespetua sustatzea, bai eta enpresa-etika sustatzea ere”.

Gaitasun horiek irakasgai hauen bidez lantzen dira:

DBHko bigarren zikloa

Irakasgai ardatzen multzoan aukeratzeko:

- **Ekonomia** (Batxilergo bideratutako irakaskuntza akademikoaren adarra)
- **Ekintzaile- eta enpresa-jardueren hastapena** (Lanbide Heziketara bideratutako irakaskuntza-adarra)

DBHko lehen zikloa

Irakasgai espezifikoak sartzen da, hiru mailatan aukeratzeko: **Ekintzaile- eta enpresa-jardueren hastapena.**

Batzilergoa (Humanitateak eta Giza Zientziak)

1. mailan:

- **Ekonomia**

2. mailan:

- **Enpresaren ekonomia**
- **Administrazio- eta kudeaketa-oinarriak**



1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena.

“Enpresa eta ekimen ekintzailea” lanbide-modulua sartzen da, ekintzaile-sena sustatzea eta finantza-hezkuntzaren zenbait oinarri, aurrez aipaturiko planetan jasota daudenak, txertatzea helburu dituena. Modulu hori zeharkakoa da lanbide-heziketako ziklo guztietan.

Euskadin, 2015. urteaz geroztik, oinarrizko finantza-hezkuntzarekin lotutako gaitasunak eta irakasgaiak sartu dira, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora arte (Hezkuntza Saiaren HEZIBERRI 2020 planaren baitan).

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

OHARRA: 2020. urtearen amaieran onartu zen **3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.**

LOMLOE deritzon aldaketa horrek hainbat mailatan aldaketak ekartzea espero da. Ekonomiako irakasgaien aldaketak izango direla espero da, baina eskuliburu hau egiteko unean oraindik ez daude guztiz zehaztuta. Beraz, eskuliburu honen hurrengo edizioetan, eskuliburu osoan aipatzen diren irakasgaietan eragin ditzaketen aldaketak sartuko dira.



Hainbat urteetan Finantza Hezkuntzarako Planak ezarri eta hezkuntza-curriculumetan sustatutako gaitasun berriak txertatu ondoren, zenbait ondorio metatu dira hezkuntza-eremuan, eta horiek geroz eta agerikoagoak dira ikasleen egunerokoan.

Finantza-hezkuntzari dagokionez abian jarri den irakaskuntza berrian, hasiera-hasieratik, finantza-sistema guztiz bereizita dago ekonomia-sistematik, finantzak ekonomiaren tresna diren arren. **Ekonomia, pertsonen eta ingurunearen beharrei lotutako gizarte-zientziatzat hartuz, ikuspegi holistikoa eta kritiko batetik ulertu behar da;** finantzak ezin dira modu isolatuan ulertu, sistema ekonomikoan duten funtzioa eta bertan eragiten dituzten ondorioak ulertu gabe.



Idea hori oinarri hartuta, finantza etikoetatik eta ekonomia solidariotik gertu dauden erakundeek partekatutako hausnarketetan, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek landu gabeko eremu gisa identifikatu zuten finantza-hezkuntza, eta premiazkotzat jo zen finantzetan oinarritutako hezkuntzaz zer ulertzen den era bateratuan definitzea, bai eta hori birkontzeptualizatzea ere, adiera solidarioago batera gerturatzeko.

Finantzaz Haratago sarearen erakunde sustatzailek egindako lana nabarmendu behar da, **“Finantzaz Haratago: Repensando la Educación Financiera desde una perspectiva ética y parabancaria”** ikerketan jasotzen dena eta finantza-hezkuntzak Euskadin zer egoera duen aztertzen duena. 2017. urtearen amaieran argitaratutako ikerketan, finantza-sistemari eta hezkuntzan dituen tresnei buruz hausnartu zen, eta ondorioztatu zen ohiko bankuen presentzia oso agerikoa eta aktiboa zela ikastetxeetan; eta horrek, noski, haien mezua errepikatzea eta sistema kapitalista hegemonikoa betikotzea eta homogeneizatzea zekarren.

Azaldutako zenbait ondorioen arabera, elkarlanean parte hartuz egindako lanaren fruitu direnak, finantza-hezkuntza hezkuntza-proiektuaren parte bada, funtsezkoa da bertan eragitea, finantza-sistemak **gizakiengan, gizartean, ingurumenean eta generoan dituen inpaktuei buruzko sentsibilizazioa** aintzat har dezan. Bai herritarrek bai erakunde antolatuek gaitasun handia erakutsi dute gizarte-inpaktu handiko proposamen eraldatzaileak egiteko; hala, horizontaletik ekinez, ekonomia sozial eta solidario baterantz bidea egiten lagundu nahi da, pertsonak eta planeta ardatzat eta helburutzat dituen finantza-eredu bat eraikitzeko.

Ikerketa honek eta finantza etikoen hurbileko erakundeek egindako beste askok ondorioztatu dute Hezkuntza giza eskubidetzat aldarrikatu behar dela bere dimentsio desberdin guztietan: formala, ez-formala eta informala. Horrez gain, aldarrikatu dute begirada eta lana ireki behar direla, herritar kritikoak sortzeko, ikuspegi sozial eta feminista batetik eta justizia klimatikotik, eraldaketa bat eskatzen duten mugimenduekin bat egiteko gai izango direnak, arazoen alternatibak ulertu eta eztabaidatzeko, tokian tokitik hasi eta mundura.


Egindako azterketa eta ikerketek erakutsi dute finantza-hezkuntza Finantzaz Haratago sareak eta erakunde aliatuek defendatzen dituen posizioen aurkako ikuspegiarekin sartu dela ikasgeletan; horrenbestez, beharrezkoa da jendea kontzientziatzea eta urteetan osatu den materiala eskura jartzea. **Baliabide didaktikoak** eman behar zaizkie irakasleei, **iritzi kritikoa lantzen laguntzen duten tresnak ikasleen eskura jar ditzaten**; aurrean duten testuingurua ulertzen lagunduko dieten baliabideak sustatu behar dira, ekonomia kontzeptuari kutsu gizatiarrago bat emanez, pertsonak eta planeta erdigunean jarriko dituen, eta ekonomia bidezkoagoa irakatsiz.



Finantza-hezkuntza eraldatzaile bat praktikan jarritz

Azaldu den bezala, egungo ekonomia-hezkuntza formalak ezkutatu egiten ditu ekonomia- eta finantza-sistemak pertsonengan –bereziki, emakumeengan– eta planetan dituen inpaktuak, eta bazterrean uzten ditu zenbait ekonomia-ikuspegi, hala nola ikuspegi feminista eta ekologikoa, bai eta ekonomia solidarioaren eta finantza etikoen alternatibak ere.

Finantza etikoen eta ekonomia solidarioaren gertuko erakundeon, azken urteetan hezkuntza etiko eta alternatibo bat eraikitzen ari garenon, xedea da **ekonomia-sistema globalarekiko kritikoa den ekonomiaren irakaskuntza** sustatzea, gazteek ekonomia-alternatiba bidezkoak, berdinzaleak eta iraunkorrak, bai eta giza eskubideak eta planeta errespetatzen dituztenak ere, bultzatzeko konpromisoa har dezaten.



Azken urte honetako helburua irakasleak eta finantza etikoen eta hezkuntza eraldatzaileen erakundeak elkartzeko gune bat eskaintzea izan da, baliabide pedagogikoak eta metodologikoak errazteko. Hori **RedEFES** webgunean jaso da. Webgunearen sorreratik bertatik, **finantza-sistemaren gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-inpaktuak aztertu ditu, eta finantza etikoak bultzatu ditu eraldaketa sozialerako tresna gisa.**

Parte-hartzea oinarri duen gune dinamiko horretan, baliabideen banku bat dago, eskuragarria eta Sareko kideen balorazioei irekia; horrez gain, eztabaidarako foro bat dago, eta esperientziak oinarri dituen gune bat, beste hezkuntza-eragile batzuek finantza etikoei buruzko hezkuntza eraldatzaile baten ikaskuntza errepikatu ahal izateko. Baliabideen banku horretan, hezkuntza eraldatzaile batekin konprometitutako tresna ugari daude.

Hemen aurkezten dugun material didaktikoen eskuliburu honetan, webgunean eskuragarri dauden baliabideak biltzen dira, formatu erraz batean, zabaltzeko eta irakasleek ikasgelan aplikatu ahal izateko; gaztelaniaz, euskaraz eta katalanez dago.

Norentzat da?

Material hau **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetako eta Batxilergoko irakasleentzat da, batez ere**, ekonomiarekin lotutako irakasgaiak irakasten dituztenentzat, hain zuzen. Horrez gain, zenbait baliabide orokor daude, lanbide heziketan ("Enpresa eta ekimen ekintzailea" irakasgai ardatzean eta enpresa-kudeaketarekin lotutako prestakuntza-zikloetan) eta unibertsitatean aplikatzeko, bai eta hezkuntza ez-formalean aplikatzeko ere. Bestalde, nabarmendu behar da RedEFES webgunea, hasiera-hasieratik, finantza etiko eta alternatiboekin lotuta dagoela berez; ez dira bertan sartzen ekonomia-hezkuntza kritikoaren erreferentziazko material guztiak, faltan bota daitezkeenak. Finantza Haratago sarean beste eremu zabalago batzuetan lan egiten dugu; horregatik, beste zerbait behar izanez gero, hala nola beste baliabide batzuk, gai baten inguruko prestakuntza, kolaborazioen bat edota ikasleekin egiteko jarduera berritzailearen bat, **jarri harremanetan gurekin**, inongo zalantzarik gabe.

Irakasgaiak eta edukien multzoa

Eskuliburu honen xedea da hezkuntzari eta finantza etikoei dagokien jarduera-arlo honekin lotutako erakundeek tokian-tokian nahiz maila globalean garatu diren baliabide eta marko etikoak (metodologikoak, praktikoak eta esperimentalak) partekatzea.

Horretarako, beharrezko ikusten dugu baliabide horiek zer **curriculum akademikotan** ezar daitezkeen identifikatzea. Segidan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ekonomiarekin lotutako irakasgaien curriculum akademikoaren xehakapena adieraziko dugu, ondorengo atalean proposatutako baliabideak irakasgaiaren zer ataletan aplika daitezkeen identifikatzeko gidatzat balioko duena.

Ekintzailtza- eta enpresa-jardueren hastapena (DBHko 1. zikloa eta DBHko 2. Zikloa)

Autonomia pertsonala, lidergoa eta berrikuntza
Enpresa-proiektua
Finantzak

Ekonomia (DBHko 4. maila)

Ekonomiaren oinarritzko ideiak
Ekonomia eta enpresa
Ekonomia pertsonala
Ekonomia, eta estatuko sarrerak eta gastuak
Ekonomia, eta interes-tasak, inflazioa eta langabezia
Nazioarteko ekonomia

Ekonomia (Batxilergoko 1. maila)

Ekonomia eta eskasia, ekonomia-jardueraren antolaketa
Ekoizpen-jarduera
Merkatua eta prezioen sistema
Makroekonomia
Ekonomiaren finantza-alderdiak
Ekonomiaren nazioarteko testuingurua
Desoreka ekonomikoak eta Estatuaren zeregina ekonomian

Enpresaren ekonomia (Batxilergoko 2. maila)

Enpresa
Enpresaren garapena
Enpresaren antolaketa eta zuzendaritza
Ekoizpen-funtzioa
Enpresaren merkataritza-funtzioa
Enpresaren informazioa
Finantza-funtzioa

Administrazio- eta kudeaketa-oinarriak (Batxilergoko 2. maila)

Enpresa-berrikuntza Negozio-idea: enpresa-proiektua
Enpresaren barne-antolaketa Forma juridikoa eta baliabideak
Enpresa martxan jartzeko dokumentuak eta izapideak
Hornikuntza-plana
Merkataritza-kudeaketa eta marketinga enpresan
Giza baliabideen kudeaketa
Enpresaren kontabilitatearen kudeaketa
Inbertsio- eta finantzaketa-beharren kudeaketa. Enpresaren bideragarritasuna
Negozio-ideiaren garapenaren azalpen publikoa

Baliabide didaktikoen eskuliburua

Hurrengo lerroetan, "Material didaktikoen eskuliburua: Finantza etiko eta alternatiboen hezkuntza ikasgelan" aurkeztuko da: Hemen jasotzen diren tresnak RedEFES webgunean daude, **baliabideak** atalean, eta bertatik deskargatu daitezke.

Materialak baliabide-motaren arabera sailkatu dira (liburua, bideoa, jolasa, etab.), eta bakoitzak bere fitxa du, bere datu espezifikoekin, hezkuntzan aplikatzea errazteko (baliabidearen esteka dute).

Irakasleak eta hezkuntza eraldatzaileko erakundeak gonbidatu nahi ditugu RedEFES sarearen parte izan daitezen, **ekimenari babesa erakutsiz eta finantza etiko eta solidarioen hezkuntzaren aldeko sarea ehuntzen lagunduz**. Horrez gain, webgunearen barruan, baliabideen bankuko proposamenen balorazioa egin daiteke, eta ekarpen eta esperientzia berriekin aberastu; halaber, eztabaida-forumean parte har daiteke, eta RedEFES sarearen jardueri buruzko informazio eguneratua eskuratu.

Euskadiko hezkuntzan dagoen gabeziaren jakitun gara, eskaintzen diren baliabide asko eta asko ez baitaude eskuragarri gure hizkuntzan, eta, horregatik, barkamena eskatu beharrean gaude; horrez gain, Finantza Haratago saretik, gure interes eta dedikazio osoa adierazi nahi dugu, **gure ikastetxeetan zuzenean aplikatu ahal izango diren euskarazko materialak ehuntzeko eta sortzeko** etengabeko lanari dagokionez.

1. GIDA DIDAKTIKOAK

a. Economía Solidaria para construir una ciudadanía global	17
b. Que tu dinero piense como tú	18
c. Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Finantza Etikoak lantzen ikasgelan	19
d. Tú y el dinero	20
e. Tu dinero cuenta	21
f. Tú decides qué hacer con tu dinero	22
g. Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko	23
h. Erronketan oinarritutako lankidetzak-ikaskuntzari buruzko gida	24
i. Ekonomia arduratsu, bidezko eta solidario baterantzko urratsak	25
j. Aplicación de la educación financiera en centros educativo	26
k. Elkartasun ekonomia herritartasun globala eraikitzeak	27

2. LIBURUAK

a. De la Banca Armada a la Banca Ética: Diez claves para pasarse a las finanzas éticas	29
b. Yo de mayor quiero ser e-co-no-mis-ta	30
c. Clara y el uso responsable del dinero	31
d. ¿Cuántas raíces de frambuesas necesitas para ser feliz?	32

3. KOMIKIAK

a. Oletakorta, ekonomia solidarioko abentura bat	34
b. Cómic: A las Afueras	35

4. ARTIKULUAK - TXOSTENAK

a. "Finantzaz Haratago" ikerketaren laburpena	37
b. Finantzaz Haratago. Finantza-hezkuntza birpentsatuz, ikuspegi etiko eta parabankariotik (Bertsio osoa euskaraz)	38
c. Del banco al aula, violencia financiera	39

5. IKASTARUAK

a. Hacia una economía al servicio de las personas	41
b. Finanzas alternativas para el cambio social	42
c. Alternativas de financiación para proyectos sociales	43
d. Finanzas Éticas. Guía para el alumnado	44
e. Ikasleentzako finantza etikoei buruzko ikastaroa	45
f. Curso Online Internacional – Finantzaz Haratago: Finanzas Éticas y Alternativas	46
g. Nazioarteko Ikastaro Birtuala – Finantzaz Haratago: Finantza Etiko eta Alternatiboak	47
h. Curso on line de finanzas alternativas para iniciativas sociales (2ª edición)	48

6. TAILERRAK

a. Las Finanzas Éticas, una herramienta para el empoderamiento de las mujeres.	50
b. ¿Dinero a cualquier precio?	51
c. Vídeo-fórum: Dinero con Valores	52
d. Taller de teatro: ¿Qué cara de la moneda quieres?	53
e. Seamos Eco-Éticos	54

7. JOKOAK

a. El rol de las finanzas	56
b. ISSE GAME	57
c. El gran juego de las finanzas. Borsopoly	58
d. Escape Room: Talleres en institutos	59

8. ARGAZKI ERAKUSKETAK

a. Finantza etikoen koloreak	61
b. Hegoaldeko herrialdeetan pobrezia jasaten duten pertsonen beste ikuspuntu batetik begiratzea	62
c. Neurriak hartzen baditugu?	63

9. BIDEOAK / DOKUMENTALAK

a. Les finances que volem – Halako finantzak nahi ditugu	65
b. Finanzas Éticas	66
c. ¿Pagarías 20 € por una caña?	67
d. Zure diruarekin	68
e. Dinámica de los cubos	69
f. Consume, Ahorra e Independízate #ConCoco	70
g. Desmontando tópicos sobre la banca ética	71
h. ¡Echamos la banca de las escuelas!	72
i. Promoviendo una banca ética	73
j. Banku armatua armagabetzen	74
k. Villa Banca Ética	75
l. Formación al profesorado: Introducción a las Finanzas Éticas	76
m. Formación al profesorado. Introducción a las Microfinanzas	77
n. Formación al profesorado. Impactos positivos de las Finanzas Éticas: Lucha a favor de la igualdad de género y contra el cambio climático	78
o. Finantza etikoen aldeko sentsibilizazio-kanpaina	79
p. Ekonomia Sozial Solidarioa: Finantza etikoen eta genero ikuspuntua mundua eraldatzeko	80
q. Finantza etikoei, generoari eta klimari buruzko mahaingurua: ekonomia feministako eskolak eta agrosistemen eta lurraldeen birsorkuntza	81

1.



GIDA DIDAKTIKOAK

1.GIDA DIDAKTIKOAK

a. Economía Solidaria para construir una ciudadanía global

Irudia



Laburpena

Liburu hau hainbat ikastetxetako irakasle, ikasle eta ekonomia sozial eta solidarioko erakunderen arteko elkarlanaren emaitza da. Argitalpenaren helburua hezkuntza-baliabide bat prestatzea izan da, horren bidez «gure ikasleek aukera izan dezaten ekonomia-gaiak alternatiba eta ikuspegi desberdin batzuen bidez lantzeko, analisi kritikoak eta ongi oinarritutakoak egiteko eta beste mundu bat posible dela eta beraiek ere aldaketa horren eragile izan daitezkeela jabetzeko».

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

DBHko lehen zikloa

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

DBHko bigarren ziklo

Ekonomia

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

Batxilergoa (giza eta gizarte-zientziak)

Ekonomia

Enpresaren ekonomia

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Batxilergoa

Hizkuntza

Gaztelania

Edukiak

Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Iraupena

138 orrialde

Saio kopurua eta saioen iraupena gaikako bloke bakoitzean zehazten da, zer eduki jorratzen diren eta bloke bakoitzean zer jarduera dauden aintzat hartuta.

Baliabidearen esteka




Egileak

José Javier Goikoetxea Ferrández
Susana Idoate Echarri
Clara Salanueva Beldarrain

1.GIDA DIDAKTIKOAK

d. Tú y el dinero

Irudia



Laburpena

Gida laburra, dirua zer den eta gure gizartean nola zirkulatzen duen jakiteko. Helburua da begiak pixka bat zabaltzen laguntzea, eta "diruaren zirkuitu" horrek zer ondorio dituen jakitea; izan ere, zirkuitu horretako kide eta katebegi gara. Era berean, bankuek zirkuitu horretan rol eta eginkizun garrantzitsua betetzen dutela ulertzen laguntzea da gida honen asmoa.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

DBHko lehen zikloa

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

DBHko bigarren zikloa

Ekonomia

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Batxilergoa
Hezkuntza Zikloak

Hizkuntza

Gaztelania

Edukiak

Finantza etikoak

Iraupena

10 ordu

Baliabidearen
esteka



Egileak

Fiare

1.GIDA DIDAKTIKOAK

e. Tu dinero cuenta

Irudia

Tu dinero cuenta

Unidad didáctica 4º ESO



Laburpena

Material honen asmoa da DBHko 4. mailako ikasleak sentsibilizatzea, ohar daitezen diruak eta finantzek zer leku duten gure gizartean, eta orobat, zer-nolako eragina duten Justizia Ekonomiko Globalean. Era berean, ikasleei ikusarazi nahi zaie ekonomia-eredu tradizionalaren aldean badirela beste alternatiba batzuk. DBHko 4. mailako ikasleekin lan egiten duten irakasleentzat pentsatuta eta diseinatuta dago material didaktiko hau.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

DBHko lehen zikloa

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

DBHko bigarren zikloa

Ekonomia

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

Batxilergoa (giza eta gizarte-zientziak)

Ekonomia

Enpresaren ekonomia

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza

Hizkuntza

Gaztelania

Edukiak

Finantza etikoak

Iraupena

2 ordu

Baliabidearen
esteka



Egileak

Fiare

1.GIDA DIDAKTIKOAK

f. Tú decides qué hacer con tu dinero

Irudia



Laburpena

Material honen asmoa da DBHko 4. Mailako eta Batxilergoko ikasleak sentsibilizatzea, ohar daitezen diruak eta finantzek zer leku eta eginkizun duten gure gizartean, eta orobat, zer-nolako eragina duten justizia ekonomiko globalean. Era berean, ikasleei ikusarazi nahi zaie beharrezkoa dela ekonomia-eredu tradizionalaren aldean beste alternatiba batzuk bilatzea.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

DBHko lehen zikloa

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

DBHko bigarren ziklo

Ekonomia

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

Batzilergoa (giza eta gizarte-zientziak)

Ekonomia

Enpresaren ekonomia

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Batzilergoa

Hizkuntza

Gaztelania

Edukiak

Finantza etikoak

Iraupena

2 saio, 50 minutukoa bakoitza

Egileak

Proclade Fundazioa
Fiare

Baliabidearen
esteka



1.GIDA DIDAKTIKOAK

g. Economía solidarioa: economía eraldatu, gure mundua eraldatzeko

Irudia



Laburpena

Edukien proposamena eta proposamen didaktikoa, ekonomiak nola funtzionatzen duen eta zer muga dituen modu sintetikoan aztertzeak. Proposamen didaktikoak hainbat jardura jasotzen ditu aipatutako gai horiek bizipenezko ikaskuntzaren ikuspegitik eta hezkuntza-ikuskerak kritiko eta eraldatzailetik jorratzeko.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

DBHko lehen zikloa

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

DBHko bigarren ziklo

Ekonomia

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

Batzilergoa (giza eta gizarte-zientziak)

Ekonomia

Enpresaren ekonomia

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Batzilergoa
Hezkuntza Zikloak
Unibertsitatea

Hizkuntza

Gaztelania
Euskara

Edukiak

Finantza etikoak
Ekonomia Soziala eta Solidarioa

Iraupena

12 proposamen eta edukien irakurketak
Proposamen didaktikoak ordubetekoak dira

Egileak

REAS Euskadi
Sorkin

Baliabidearen
esteka



1.GIDA DIDAKTIKOAK

h. Erronketan oinarritutako lankidetzak-
ikaskuntzari buruzko gida

Irudia



Laburpena

Gida honek lan-tresna erraz, labor eta praktikoa eskaini nahi die Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko irakasleei, erronketan oinarritutako ikaskuntza-metodologia nola aplikatu erakusteko, eta metodologia horren bidez, ekintzailatza soziala sustatzeko, beti ere ESSren ikuspegitik.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

Hezkuntza Zikloak, Unibertsitatea

Nori zuzendua

Hezkuntza Zikloak
Unibertsitatea

Hizkuntza

Gaztelania
Euskara

Edukiak

Finantza etikoak
Generoa eta finantzak
Ingurumena eta finantzak
Ekonomia Soziala eta Solidarioa
Kontsumo arduratsua

Iraupena

5 proposamen
Iraupen aldakorra

Egileak

Mugarik Gabeko Ekonomialariak

Baliabidearen
esteka



1.GIDA DIDAKTIKOAK

i. Ekonomia arduratsu, bidezko eta
solidario bateranzko urratsak

Irudia



Laburpena

Material sorta honen xedea da 3 unitate didaktiko hauetako kontzeptuak erakustea:
– Enpresa eta Giza Eskubideak
– Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegian erroturiko ekintzailatza
– Komunikazioa genero eta Giza Eskubideen ikuspegitik

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

Batxilergoa (giza eta gizarte-zientziak)
Ekonomia
Enpresaren ekonomia
Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Baliabidearen
esteka



Nori zuzendua

Batxilergoa
Hezkuntza Zikloak

Hizkuntza

Gaztelania
Euskara

Edukiak

Finantza etikoak
Generoa eta finantzak
Ingurumena eta finantzak
Ekonomia Soziala eta Solidarioa
Kontsumo arduratsua

Iraupena

3 unitate didaktiko, 3 ordukoa bakoitza

Egileak

Mugarik Gabeko Ekonomialariak

1.GIDA DIDAKTIKOAK

j. Manual didactico para la aplicación de la educación financiera en centros educativos

Irudia



Laburpena

Finantza arloko hezkuntzan irakasleen, ikastetxeen, ikasleen eta familien esku-hartze handiagoa bultzatzeko tresna da gida didaktiko hau. Material egokia da irakasleei “ikasten eta ulertzen erakutsi” eta gisako kontzeptuak lantzen laguntzeko, ondoren, ikasleei lagun diezaieten haien ikaskuntza-prozesuan modu aktiboan esku hartzen, eta ikasitako hori gaur egungo garapen sozial eta teknologikoaren esparruan aplika dezaten.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

- DBHko lehen zikloa**
Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena
- DBHko bigarren ziklo**
Ekonomia
Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena
- Batxilergoa (giza eta gizarte-zientziak)**
Ekonomia
Enpresaren ekonomia
Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Baliabidearen esteka



Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Batxilergoa
Hezkuntza Zikloak
Unibertsitatea
Hezkuntza Ez Formala

Hizkuntza

Gaztelania

Edukiak

Finantza etikoak
Kontsumo arduratsua
Inpaktuak

Iraupena

10 ordu baino gehiago


Egileak

Adicae

1.GIDA DIDAKTIKOAK

k. Elkartasun ekonomia herritartasun globala eraikitzeko

Irudia



Laburpena

Liburu hau hainbat ikastetxetako irakasle, ikasle eta ekonomia sozial eta solidarioko hainbat erakunderen arteko elkarlanaren emaitza da. Argitalpenaren helburua izan da hezkuntza-baliabide bat sortzea, horren bidez «gure ikasleek aukera izan dezaten ekonomia-gaiak alternatiba eta ikuspegi desberdin batzuen bidez lantzeko, analisi kritikoak eta ongi oinarritutakoak egiteko eta beste mundu bat posible dela eta beraiek ere aldaketa horren eragile izan daitezkeela jabetzeko».

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

- DBHko lehen zikloa**
Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena
- DBHko bigarren ziklo**
Ekonomia
Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena
- Batxilergoa (giza eta gizarte-zientziak)**
Ekonomia
Enpresaren ekonomia
Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Baliabidearen esteka



Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Batxilergoa

Hizkuntza

Gaztelania
Euskara

Edukiak

Ekonomia Soziala eta Solidarioa

Iraupena

138 orrialde

Egileak

José Javier Goikoetxea Ferrández,
Susana Idoate Echarri y Clara
Salanueva Beldarrain

2.

LIBURUAK



2. LIBURUAK

a. De la Banca Armada a la Banca Ética: Diez claves para pasarse a las finanzas

Irudia



Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

Ez dagokio

Baliabidearen esteka



Laburpena

Argitalpen honen asmoa da gerraren industria elikatzen duten finantza-jardunen aurkako mobilizazio soziala bultzatzea. Kontsumitzaile garen aldetik, ahalmen handia dugu gizartea eraldatzeko. Hori dela eta, lerro hauek hainbat alternatiba eskaintzen dituzte, banku- eta finantza-zerbitzuak kontsumitzeko ohituretan aldaketak sustatzeko, bai norbanako gisa bai kolektibo moduan.

Nori zuzendua

Sentsibilizazioa

Hizkuntza

Gaztelania
Katalana

Edukiak

Finantza etikoak
Inpaktuak

Iraupena

98 orrialde

Egileak

Jordi Calvo Rufanges
Eduardo Aragón Ruiz

2. LIBURUAK

b. Yo de mayor quiero ser e-co-no-mis-ta

Irudia



Laburpena

Jan, aita eta zenbait lagun hondartzako txosna bat martxan jartzeko asmotan dira. Alabaina, ez datoz bat nola kudeatu behar den negozioa. Ikuspegi tradizionalak (norberaren etekina lortzea lehiaren bidez) talka egiten du Janen aitak proposatzen duen ikuspegi berriarekin. Aitaren asmoa da, elkarrekin lankidetzan aritzea eta, horrela, guztion onura lortzea. Janek pixkanaka-pixkanaka ikasiko du, aitaren eskutik, bigarren bide hori askoz esker hobeagokoa eta asebetegarriagoa dela lehena baino.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

- DBHko lehen zikloa
- Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena.
- DBHko bigarren zikloa
- Ekonomia
- Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena

Baliabidearen esteka



Nori zuzendua

Lehen Hezkuntza
Bigarren Hezkuntza

Hizkuntza

Gaztelania
Katalana

Edukiak

Finantza etikoak
Ekonomia Soziala eta Solidarioa

Iraupena

69 orrialde


Egileak

Montse Junyent

2. LIBURUAK

c. Clara y el uso responsable del dinero

Irudia



Laburpena

Liburuak finantza etikoak eta bidezko merkataritza ditu aztergai, gaztetxoei kontzeptu eta filosofia horien berri emateko. Besteak beste, gai hauek jorratzen ditu: dirua nola agertu zen, nola sortzen den eta zer erabilera eman diezaiokegun. Liburuak gogorarazten digu gure diruari ematen diogun erabileraren arabera, era bateko edo besteko ondorioak sor ditzakegula. Era berean, bai aurrezkiari eta bai kontsumoari begira dirua kontzientziaz, arduraz eta guztion intereserako erabiltzeak zer-nolako balioa duen azpimarratzen du.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

- DBHko lehen zikloa
- Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena.
- DBHko bigarren zikloa
- Ekonomia
- Ekintzailtza eta Enpresa-jardueren hastapena

Baliabidearen esteka



Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Hezkuntza Ez Formala

Hizkuntza

Katalana

Edukiak

Finantza Etikoak
Inpaktuak

Iraupena

77 orrialde

Egileak

Maurizio Spedaletti
Ilustrazioak: Rachele Lo Piano

2. LIBURUAK

d. ¿Cuántas raíces de frambuesas necesitas para ser feliz?

Irudia



Laburpena

Kastore familia bat herio-suhar hasi da gordelekuak eraikitzen eta hain gustukoa duen jakia metatzen: masusta gorrien sustraiak. Baina berehalako batean, gehiegikeria horiek ondorioak ekarriko dituzte: sustraiak agortu egingo dira, eta erauntsi bortitzek suntsitu egingo dituzte gordelekuak.
Nola lortuko ote dute irteerarik gabeko ataka horretatik ihes egitea?
Txikienei krisi ekonomikoak nola sortzen diren eta egoera lehengoratzeko funtsezko balioak zein diren azaltzeko baliabide egokia da liburua.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

Lehen Hezkuntza

Nori zuzendua

Lehen Hezkuntza

Hizkuntza

Gaztelania
Katalana

Edukiak

Ingurumena eta finantzak
Ekonomia Soziala eta Solidarioa

Iraupena

43 orrialde

Baliabidearen esteka



Egileak

Montse Junyet

3.

KOMIKIAK



3. KOMIKIAK

a. Oletakorta, ekonomia solidarioko abentura bat

Irudia



Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

Batxilergoa (giza eta gizarte-zientziak)

Ekonomia
Enpresaren ekonomia
Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Baliabidearen esteka



Laburpena

Bost neska-mutil gaztek, langabezian geratu ondoren, nekazaritza-turismoko negozio bat martxan jartzea erabaki dute. Oletakorta komikiak ekonomia soziala eta solidarioa zer den azaltzen du, gazte hauen bizipenen bidez. Gazteon esperientziatik abiatuta, ekonomia sozial eta solidarioko jardun desberdinak ezagutarazten ditu liburuak, eta jardun horien bidez pertsonak eta planeta ardatz hartuko dituzten negozioak nola sor daitezkeen azaltzen du.

Nori zuzendua

Batxilergoa
Unibertsitatea

Hizkuntza

Gaztelania
Euskara

Edukiak

Ekonomia Soziala eta Solidarioa

Iraupena

34 orrialde

Egileak

Amaia Ballesteros
REAS Euskadi
Alboan

3. KOMIKIAK

b. Cómic: A las Afueras

Irudia



Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

Sentsibilizazioa

Baliabidearen esteka



Laburpena

Hodeik eta Mariek bulego berean egiten dute lan, “Zu bee project” enpresan; turismo arloko I+G+b enpresa transnazional eta moderno batean. Zehazki, eraikinaren behe-beheko aldean egiten dute lan, sotoan. Bilboko Erribera auzoa gaur egun “Uharte” da, Cityaren bihotza. Eraikinak distiratsu ageri dira, teknologiak garapen bidean jarraitzen du, eta enpresa-jardunek ekonomia-garapen bikainari eusten diote.

K.o. 2112. urtean gaude. Kapitalismoak Mendebalde osoa hartzen du... Osoa? Ez! Kanpoaldean badira “0 Eremuak”, izaki menderaezinek birpopulatutako inguruneak; eta izaki horiek eutsi egiten diote, beti egin izan duten moduan, erraldi traidunari. Munduan barna barreiatutako enpresa handien estrategiak ikusita, bizimoduak erraza dirudi, baina ez da, ezta hurrik eman ere.

Errealitatearekin zerikusia duen oro EZ da kasualitate hutsa. 2020. urtean, Merkatu Sozialak antolatzen hasita zeuden herrialde batzuetan eta besteetan; merkatu horiek aurre egiten zioten sistema kapitalistari, eta, era berean, beste ekoizpen- eta kontsumo-molde batzuk zituzten. Irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioak oinarrian hartuta eraikitako ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sareak ziren, eta halaxe deskribatzen ziren ordurako.

Nori zuzendua

Sentsibilizazioa

Hizkuntza

Gaztelania

Edukiak

Kontsumo arduratsua
Generoa eta finantzak, Inpaktuak
Finantza etikoak, oro har
Ekonomia Soziala eta Solidarioa

Iraupena

46 orrialde

Egileak

Al borde Films+Amaia Ballesteros

4.



ARTIKULUAK - TXOSTENAK

4. ARTIKULUAK - TXOSTENAK

a. “Finantzaz Haratago” ikerketaren
laburpena

Irudia



Laburpena

«Finantzaz Haratago» txostena laburtzeko eskuorria. Euskadin finantza-hezkuntza zertan den jasotzen du txosten horrek.

Zer ikasgaitan eta arlotan aplikatu

DBHko lehen zikloa

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

DBHko bigarren ziklo

Ekonomia

Ekintzailatza eta Enpresa-jardueren hastapena

Batxilergoa (giza eta gizarte-zientziak)

Ekonomia

Enpresaren ekonomia

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak

Nori zuzendua

Bigarren Hezkuntza
Batxilergoa
Hezkuntza Zikloak
Unibertsitatea
